

dintsu bat neri erantzun: Berria dala-ta beste go-  
be ere ez gendukela berria ezetsi bear. Bañan ez  
bait-diot nik berriari bildurrik berria dalako,  
beste zer arengatik baizik. Dana dala:nik nere  
bildurrean sinplekeri bat esan, eta zuk beste bat  
erantzun...ez al-derio, Kiozu?.

Bañan beste olako sinplekeri batzuek  
geiago ere, pozik esango nizkitzuke oraintxe. Eta  
auze bat: Besteak beste, Alemania-ko Catecismo Ca-  
tólico berri ori (orrenbeste ad Cor. eta ad Gal.  
eta ad Thesal. guzti oiekin) De catechizandis  
rudibus ez baño, Catechismus ad Parochos bat o-  
beto gertatuko ez ote dan, ots, Catechismus ad Ca-  
chistas bat, umeem eskuetan ipintzeko aunditxo  
ta jakintsuegi... nolanai dala ere, gure ta beste  
iñungo ume, naiz baserri naiz kaletarren eskueta-  
rako geiegia. eta, ola ola, gero ere, umeentzako e-  
ta pro rudibus laburpen bat egin bearrean arki-  
tu ez ote geran arkituko... Bijaie ortarako ez ba-  
it-zan bizkar-zaku-bearrik...

Bañan ori geroak esan bearko du; eta gau-  
den ixillik onenbestez.

Eta agur dizu, beste gabe, zure Apaizkide  
Lekuona zaharrak.

P.D. A. Berasaluze' rentzat.

Bai; errenkada oietxen babesean, postda-  
tatxo bat A. bizkor orrentzat.

Zuk ere nere kritika nere Egan-ko kri-  
tika, - etzenduan bear bezela artu. Arbi-txikia-  
ri zuk ere ostroetatik eldu zenion. Eta ola esa-  
ten dizkidatzu gero ainbeste gauza YAKIN'go eran-  
tzun bixian, Pedagogiak berrogei urte oetan egin  
dituen aurrerapen arrigarriai buruz.

Nik, ez det uste, olako aurrerapenak uka-  
tu nituanik nere kritikan. Ain aundiak al-diran  
geldetzen nuan baizik. "Ain aundiak" alegia, Do-  
trina Berririk etorri oi diran kalteen aldean,  
kalte aiek bezain aundiak, alegia. "Ain" ortan ber-  
dinkatze bat, ots, konparazio bat eskutatzen baita-  
da, dakisun bezela. Eta berdikatze orren beste ar-  
tas-muturra, orixe bait-zan: ni ainbeste bildyrtzen  
ninduan -eta naun- Eusjeraren kaltea. Bañan dana  
dala berriz ere; kaltea egiña dago. Geroak beza Itz.